

EUDELEK ETA BIZKAIKO FORU ALDUNDIAK UDAL GAZTEDI BIZKAIA HITZARMENA SINATU DUTE

- **Miren Josune Ariztondo Kulturako foru diputatuak eta Ibone Bengoetxea EUDELeko elkarteburuak Udal Gaztedi akordioa sinatu dute, Bizkaiko Lurralde Historikoan gazteentzako politikak sustatzeko.**

Bilbon, 2011ko abenduaren 14an. Hitzarmen hori sinatzearen ondorioz, Udal Gaztedi ezarri eta garatuko da. Bizkaiko Lurralde Historikoko toki eremuan gazteentzako politikak koordinatzeko organoa da Udal Gaztedi.

Udal Gaztediren helburu nagusiak dira gazteentzako ekintzak sustatzeko irizpideak bateratu eta hobetzea eta udalen iritzia eta iradokizunak jaso eta kontrastatzea. Kide anitzeko organo bat da, aholkuak emateko eta kontsultarakoa. Honela egituratuta dago: Lurralde Batzordea, Eskualdeetako Batzordeak eta Lantalde Sektorialak.

Organo hau gune aholku-emaile bat da, gazteentzako neurriak eta jarduerak planifikatzeko eta garatzeko. Helburua Bizkaiko Foru Aldundiaren eta udalen arteko esku-hartze integral eta partekatua lortzea da.

Gaztedi Bizkaia-Udal Gaztedi proiektu erreferente bat da Bizkaiko gazteentzako politiketarako; gazteentzako politikak sustatu eta koordinatzeko aukera ematen duen tresna bat da, gazteek bizitzako eremu guztietan dituzten beharrezko buruzko ikuspegi orokorra aztertzen duena. Honako hauek dira eremu horiek: prestakuntza, lana, etxebizitza, nortasuna, hizkuntza, parte-hartzea, lurraldearen arloko oreka, garapen komunitarioa, kohesioa, garapen iraunkorra eta mugikortasuna...

Udal Gaztedi Bizkaiko gazteentzako politiken erreferentzia-esparrua da; gazte politikak definitu, sustatu eta koordinatzeko aukera ematen digun tresna berritzaile bat da, eta, aldi berean, gazteen autonomia, lurraldearen arloko oreka eta gizarte kohesioa eta konpromisoa bermatzen dituen tresna ere bada. Helburuen adierazpen bat eta helburu horiek lortzeko lanerako metodo bat da, baliabideak optimizatzea eta antolatzea proposatzen duena.

Udalen inplikazioa oso garrantzitsua da hiri handietan eta konurbazio handietan, dagoeneko badituztelako gazteentzako politika aktiboak. Baina oso garrantzitsua da ere eskualdeburuetan eta herri ertain eta txikietan, oraindik ez dituztelako garatu gazteentzako politika integralak.

Beraz, Udal Gaztedi akordioak, batetik, gazteentzako politikak sustatzeko erreferente izan nahi du oraindik politika horiek garatu ez diren lekuetan, eta, bestetik, dagoeneko martxan dauden tokiko politiken osagarri izan nahi du.

Akordioa sinatzeko ekitaldia Euskalduna Jauregian egin den jardunaldiaren barruan burut da. Jardunaldian arlo honetako adituek aurkeztutako hainbat txosten landu dira. Gironako Unibertsitateko Hezkuntzaren Teoria eta Historiaren irakasle titularra den Pere Soler doktoreak "Gazteentzako tokiko politikak" txostena aurkeztu du. Maitane

Leizaola Kirolen eta Gazteriaren zuzendari nagusiak egin ditu moderatzaile lanak. Bestalde, Zaragozako Unibertsitatean Filosofia Sozial eta Politikoko katedraduna den Daniel Innerarity jauna moderatzaile izan da Joaquin Brugué i Torruella jaunaren txostenean. Brugué jauna Ekonomi Zientzietan lizentziaduna da, Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan (UAB), eta “Gazteria eta parte-hartzea” txostena aurkeztu du.